

## Jose Luis Alvarez Enparantza, 'Txillardegiri' &gt; Idazlea

'Sasi guztien gaintetik, euskaldun eta burujabe!' lelopean, manifestazioa antolatu du Euskal Herrian Euskaraz-ek gaurko. Ekitaldi horretan omenaldia egingo diote Txillardegiri, euskararen alde egindako lana eskertzeko.

# «Estatu batekin, agian, euskara ez da salbatuko; gabe, ziur ezetz»

Iñaki Petxarroman Donostia

EHEk antolatuta, omenaldia egingo diote gaur Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegiri* (Donostia, 1929). Euskara batua-aren akuilu, EHEren sortzaile, idazle, politikari, euskaltzale nekaezin... Pozik dago EHEren ekimenagatik, eta eskertzen dio. «Nire ideien alde jokatzeko duen jendearen partetik gorazarre bat hartzea pozgarri zait. Besterik litzateke orain arte larrutu naute nek horrelakorik egitea», dio.

**EHEren sortzaileetako bat izan zinen, duela 30 urte. Zergatik sortu zenuen erakunde hori?**

Euskara beti bigarren mailan geratzen zela ikusten genuelako sortu genuen Euskal Herrian Euskaraz. Horri gogor aurre egin behar zitzaiola erabaki genuen, eta horretarako sortu genuen. Argi dago elebitasun orekaturik ez dagoela, hori mito bat besterik ez dela. Munduan badira hainbat adibide; Belgikan, esaterako. Teorian, bi hizkuntzak berdina dira legez, baina *de facto*, Bruselan adibidez, frantsesa nagusitu da. Flandrian, berriz, ez dakite frantsesez. Elebitasun orekatua jendea engainatzeko trikimailua da, eta Belgikan hala baldin bada, pentsa hemen, hizkuntz eskubide pertsonalik ez dago eta. Lopez eta Sanz daude agintean. Francoren garaian antzera gaude, agintean direnak euskararen aurkakoak dira eta.

**Euskara larri zegoela zenioten orduan: «Honela euskara heriotzara doakigu».**

Kalean oso gutxi erabiltzen zen. Politikariek zioten politikari eman behar zitzaiola lehentasuna eta gero helduko geniola euskarari. Baina hori Irlandan gertatu zen gaelikoarekin. Lortu dute independentzia, baina gaelikoa galduta dago.

**Garai hartan euskararen egoera larria zen, baina ez zen samurragoa izango zuri euskararekiko grina piztu zitzaizun frankismoko urteotan...**

Nire gazte garaian, Antiguana [Donostia], euskaraz hitz egiten zuten Igaratik eta Igeldotik etortzen ziren baserriarrek, esnezaleek... Egoera diglosiko garbia zen, eta gauza serioetarako espainola era-

biltzen zen. Jende arruntarekin, baserriarrek eta, euskaraz egiten zen. Diglosia zegoen, eta, gainera, zentzurik txarrean.

**Zuk, berez, euskararekiko harremanik ez zenuen. Nola sortu zitzaizun harekiko grina?**

Oso txikitatik. Errepublika garaian baino lehenago. Baziren liburu batzuk, eta atzealdean erasikin bat zegoen euskarari buruz. Niri betidanik interesatu zitzaidan, eta pentsatzen nuen: «Hau da gure hizkuntza; zergatik doa beti azken orrialdeetan?». Pentsa, errepublika garaian hala bageunden, frankismo garaian are eta okerrago. Gurasoak euskaldunak baziren ere, ni hutsetik hasi nintzen euskara ikasten, etxean beti espainolez egiten genuelako.

**Ama entzun zenuen inoiz euskaraz egiten?**

Bai, nire seme-alabekin.

**Garai hartan, baina.**

Baserritarrek, erosketetan... Amak ondo egiten zuen euskaraz. Pentsa ezazu, garai hartako Donostia ingurua guztiz euskalduna zen, eta baserriarrek, esaterako, ez zekiten erdaraz.

**Euskara batua aldeko sutsua izan zinen. Orain egina dagoela dirudi, baina garai hartan eztabaida latza izan zenuten.**

Oso eztabaida latzak izan ziren. Gure artean, alde batetik, Mitxelena zegoen; eta, bestetik, Krutwig. Krutwig getxotarra zen, baina gurasoak alemanak zituen. Haren erdua alemana zen. Han, Lutherren biblia hartu eta itzuli egin zuten. Krutwigek zioen hemen gauza bera egin behar zela: Lizarragaren biblia hartu eta eredu moduan erabili. Baina, jakina, euskara hura oso bitxia zen guretzat: *Ikusi nuen* beharrean, *ikus neban* erabiltzen zuen, eta *esan zion: erran ziotzon*. Oso hizkuntza artifiziala zen hori, eta gu horren kontra geunden. Mitxelenak esan zuen irtenbidea garai hartako gaztedi euskaldunari begirakoa zela eta gaztedi hori Gipuzkoan eta Bizkaian zegoela. Kontua da Iparraldekoak ere hor zeudela. Beraz, Bizkaiko euskara, oso interesgarria bada ere — eta fonetiko-ki eta Gipuzkoakoa baino askoz ere hobea da —, praktikan erabaki zen gipuzkera hartzea lapurte-



ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

raren ukitu batzuekin: *h*-ak, adibidez... Eta, hizkuntza artifiziala bazen ere, hala sortu zen euskara batua, bizkaiera kanpoan utzita. **Bizkaiera baztertu izanak kritika ugari eragin ditu. Zer deritzozu?**

Egia da, baina oso zaila zen gauzak beste era batera egitea. Bizkaiera beste herrialdeetako euskaldunek ez dute ulertzen. Gu geu ere galdu egiten gara bermeotar batek hitz egiten duenean, eta hori guri gertatzen bazaigu —maila teoriko bat landuta daukagunoi—, zer esanik ez jendeari. Ez da posible, zoritxarrez, zeren nik ere nahiago nuen bizkaiera.

**Mitxelenak zuen tesiekin bat egin ez balu, euskara batuak ez zuen aurrera egingo, ezta?**

Guk bultzatu genuen, baina Mitxelenak jarri zion zigilua. Gu 1964an Baionan elkartu ginen. Ni ihes eginda nengoan. Guk txostenak Iparraldean egiten genituen: Monzonek, Iparraldeko jendeak... Txostenak bidaltzen genituen Hegoaldera, 18-20 bat lagumi, eta haien iritziak jaso ondoren proposamenak osatzen genituen. Bide hori ez zen praktikoa, eta 1968an Arantzazun egin zen kongresu sonatuan Mitxelenak ezarri zuen bere iritzia. Bera gabe ez zen sortuko euskara batua.

**Fonetikarekin kezkatuta zaude azkenaldi honetan. Mugaz alde batekoak eta besteak gero eta urrutia go daudela diozu.**

Hor problema latza dugu. Alde batetik, aitortu behar da gure artean ez dagoela nahiko pisu duen

inor arazoari heltzeko. Gauzak hala izanda, zaila izango da jendeak horren aurkako neurriak horren erraz onartzea, erdaren eraginak ikaragarriak direlako. Orain dela 30 urte txosten bat egin nuen azentu kontuetan egiten diren erdarakada azkor hauek azaltzeko. Esaterako, *nik badakit* esatea da ahozkeraz zuzena; bada, jendeak hau esaten du: *nik badakit*, espainolaren *sí, lo sé* horren eraginez.

**Hainbat elkarrizketa eta iritzi artikulutan Euskaltzaindiari leporatu izan diozu horren erru parte bat.**

Ez dira ausartzen gaiari heltzeko. Nahiko istilu izan zituen euskara batua egiteko prozesuan, idazkera eta horrelako kontuei buruz. Azentuei buruz oso zaila da, euskalki batetik bestera gauzak aldatzen direlako. Azkoititik Azpeitera hitz egiteko modua hainbeste aldatzen bada, atera kontua zer izango den Bermeo eta Otsagabia artean. Kontua da egun ez dagoela inor garai batean Mitxelenak beste ospe duenik. Jendeak errespetatzen zuen eta gai zen erabakiak ezartzeko.

**Euskalkietan eragitea zaila izan daiteke, baina hizkuntza estandarra**

**«Bizkaierak ez du balio euskara baturako: beste herrialdeetan ez dute ulertzen»**

**«Bizkaitarrek hobeto erabiltzen dute azentua gipuzkoarrek baino»**

**finkatzeko beste eremu batzuk bada: hedabideak, eskolak...**

Lortu behar dugu euskararen erdua bultzatzen duten erakundeak, bereziki irrati eta telebistek, esaten ari garena errespetatzea. Esaterako, Joseba Egibarrek eta Iñaki Antiguadadek oso ondo egiten dute euskaraz. Ereduak hor daude. Bizkaitarrek hobeto erabiltzen dute azentua gipuzkoarrek baino, eta, hala ere, Gipuzkoan euskararik onena dagoen ustea oso zabaldua dago. Hori ez da egia. Gipuzkoako euskara ez da ona gauza askotan.

**Zer moduzko harremana duzu Euskaltzaindiarekin.**

Ona. 1978an Euskaltzaindiak nire eskuetan jarri zuen aditz batua-ren batzordearen aurkezpena. Nik hartu nuen, Euskaltzaindiak ordainduta atera zen, eta hor dago. Baina gero erakunde ofizial-letara hurbildu zen, eta nik haien-tzat ospe txarra nuen, «ETAko gizona» nintzelako.

**Euskaltzain oso egin ez izana kritikatu dute euskaltzale askok urte hauetan. Zuretzat mingarria izan da, euskararen aldeko akuilu nagusietako bat izan zirela kontuan izanda?**

Niretzat hori garai batean izan zen mingarria, baina gaur egun ez. **Berriki Patxi Lopezek esan zuen indarkeria desagertzean euskarak askatasunarekin bat egingo duela betiko. Zer deritzozu?**


Horiek zozokeriak dira. Nazismoa gainditzean alemanak askatasunarekin bat egingo zuela esatea bezala da hori. Azken finean, erakutsi nahi dute euskara politizatuta dagoela. Gauza bat argi dago: hemen telebista bat euskaraz baldin badago, eta beste hainbeste gauza, indar abertzaleek bultzatu dutelako da. Gauza horiek ez dira sortu PSOeri esker.

**Unescoko adituek diote galtzeko arriskuan segitzen duela euskarak, eta mende honetan hizkuntzen erdiak galduko direla. Jabetzen al gara arriskuaz?**

Uste dut arriskuan gaudela ez dugula sinesten. Baina, nire ustez, ikusita dago: ez bada beharrezkoa bere lurraldean, hizkuntza batek jai du. Suitzan, adibidez, Zurichera joaten bazara, alemana jakin behar duzu; bestela, jai duzu. Guk hemen baratxuri zopa asmatu nahi dugu, baina gauzak horrela dira.

[Tabernako zerbitzaria etorri zaio, zer hartu nahi duen galdezera. Euskaraz egin dio, eta hark ez dio ulertu. Erdaraz egin behar izan dio].

Ikusi duzu tabernari hau? Hemen euskara ez da beharrezkoa. Ez du batere beharrik euskara ikasteko, eta hau bezalako kasuak gertatzen dira leku guztietan. Hemen oso ondo bizi liteke euskaraz fitsik ulertu gabe.



ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

**Euskaldunen kontzentrazio geografikoa behar dela zenioen berri iritzi artikulu batean.**

Hor badago liburu bat: *Soziolinguistika matematikoa...* Hor frogatzen da bi eleko eskualdeetan gune euskaldun huts batzuk ez badaude, euskara ez bada beharrezkoa, galdu egiten dela. Niri hau gertatu zitzaidan Anberesen [Flandria]: gutun batekin joan nintzen postara, frantsesez mintzatu nintzaion langileari, eta hark tutik ez zuen ulertzen. Azkenean, ospa egin behar izan nuen.

**«Gaur egun niretzat ez da mingarria euskaltzain oso egin ez izana»**

**«Hizkuntza batek jai du, hitz egiten den lurraldean beharrezkoa ez bada»**

**«EA eta ezker abertzalea alde handiz nagusituko lirarteke Gipuzkoan»**

**Behin baino gehiagotan esan duzu euskaldunak aski fidelak zaizkiola euskarari, eta baldintzak daudenean erabili egiten dutela.**

Hori frogatuta dago, inkesta asko egin dira eta. Badira gurean bi herri guztiz harrigarriak: Lizarra eta Laudio. Bietan euskara oso minoritarioa da. Baina abertzale jendea da, eta haurrak ikastolara bidali dituzte, eta momentu honetan kalean euskara entzuten da. Hori ikastolei esker gertatu da. Eskola publikoa une honetan PSOEren esku dago, eta euskarari balio funtzionala ematen dio. Ikastoletan badago Euskal Herriaren proiektu bat. Hizkuntza bat ezin da salbatu bihotza ez badago tartean, ez bazaio dimensio abertzalea ematen. Estatu batekin, agian, euskara ez da salbatuko; baina estaturik gabe, ziur ezetz. Estatua edukita, Irlandakoa gerta liteke, baina hori salbuespena da. Espero dezagun gu ez izatea bigarren salbuespena.

**Frankismo garai beltzetan gazteek eman zenioten bultzada berebizikoa euskarari. Nola ikusten dituzu gauegungo gazteak?**

Egungo gazteek ez dituzte ezagutu gure garaiko zailtasunak. Haientzat, euskara erakundetan dagoen zerbait da. Ikuspegi praktikoa dute, ikastolak hor daude, euskara irakasten da eskolan... Beldir naiz ez ote duten galdu guk izan genuen dinamika.

**Literaturan ere ez zaizkizu gorazarrak falta izan; bereziki, Leturiaren egunkari ezkutua lanagatik. Ari al zara zerbait idazten orain?**

Orain zazpi saiakera ari naiz prestatzen. Horietako bat soziolinguistikari buruzkoa da. Hain zuzen ere, Tunisiako egoera elebiduna hartu dut hizpide. Han bi hizkuntza ofizial daude —arabie-

ra eta frantsesa—, baina nik, han egon naizen guztietan, arabiera besterik ez dut entzun, baita gazteen artean ere. Frantsesa kanporako hizkuntza da, kultura hizkuntza, baina arabiera da nagusia. Hartuko nuke nik antzeko egoera bat hemen.

**Nola ikusten duzu euskarazko literatura eta, oro har, kulturako egoera?**

Ondo. Hemen idazleak, normalean, abertzaleak dira, eta nahiko euskara ona egiten dute. Hemen go arazoa fonetikoa da. Bidenabar, aitortu behar zaio Atxagari, esaterako, abertzale ez izanda, Ezker Batukoa baita, euskaltzale porrokatua dela. Batzuetan James Joycerekiko antza hartzen diot. Hura irlandarra zen, eta futitzen zen hango abertzaleez. Atxaga ez... Atxagak errespetatzen gaitu. **Politikan ere izan duzu zer esanik, HBn bereziki. Nola ikusten duzu egungo egoera politikoa?**

Oso baikor nago. Problema da espainolak konturatu direla ezker abertzalea legeztatzen bada argi geldituko dela jende asko —bereziki, Gipuzkoan— abertzalea dela eta ezker abertzaleari emango diola botoa. EA eta ezker abertzalea alde handiz nagusituko lirarteke Gipuzkoan, Bizkaian dezente, eta Nafarroan ere bai... Hor pena, Aralarren jarrera. Badirudi euren burua salbatu nahian dabiltzalá. Baina problema ez da hori. Problema da Nafarroan zerbait egiteko elkartu egin behar gara. **Nafarroan abertzaleak batera ezin joatea etsigarria gertatzen ari zaio askori. Zuk nola ikusten duzu?**

EAJk ez du indarririk Nafarroan. Gehiago du Aralarrek, esaterako. Baina Aralar, ez dakit zer dabilen aspaldi honetan; bere burua salbatu nahian dabilela ematen du. Aralar eta EA oso ondo moldatu beharko lirarteke, pertsonalismoak alde batera utzita. EAJk egin duen urratsaren aurrean txapela kentzen dut. Ezker abertzaleak aurkeztu dituen alderdi berriaren estatutuek ez dute uzten zirrikiturik legez kanporatzeko. Baina, hala ere, ez naiz fio. Hemen agertzen bada argi ezker abertzalea eta EA nagusi izango direla, Madrilek kontra egingo du.

**Eta EAJ nola ikusten duzu?**

Espainiarekiko hitzarmena du helburu. Hemen dagoen istilu honetan, eta Madrila joan da. Raxoierekin ere ez lukete arazorik izango itunak egiteko. Gurekin, berriz, ez dute ezer jakin nahi. Garai bateko karlistak ekartzen dizkirate gogora. «Gora erregea, egurrá separatistei!»...

**Madrilek beldur handiagoa al dio bide politikoiari bide politikoi-arma-tuari baino?**

ETAk erabaki zuenean bide politikoi-arma-tutik jotzea testuinguru historikoa hartu behar zen kontuan: Fidel Castro zegoen Kuban; Ipar Afrikako mugimenduak; European, IRA... Borroka armatuaren aldeko giro bat bazegoen, eta Sobietar Batasunaren itzala. Egungo ez dago ezer.